



uhinak

BEKA

2020

UHINAK BEKAK

Ezagutzea
ezagutzea kontzientzia
hartzea izan daiteke,
baina baita eraldaketarako
abiapuntua ere
edo praktikarako oinarri.

Izena eta izana
elkarloturik doaz
Izenak, zapaltzen gaituen
sistema izendatzearen ekintzak eman ahalko baitugu
kontzientzia
ahaldunduko gaitu.

Izenak,
gure zerumugak
izendatzeak,
gure zero eta mugak
izendatzeak,
bideak eta prozesuak
izendatzeak eman ahalko baitugu izanerako bidea.

Ikuspegi eta forma
ezberdinak bildu nahi ditugu Pentsamendu Kritikoaren
saretzeko ariketa honetan.



PENTSAMENDU KRITIKOA SARETZEKO BEKAK


Uhinak,

Perturbazio baten eraginez ematen den energia transmisio era bat dela dio definizioak.

Perturbazioa eta energia, aldaketa eta eraldaketa.

Pentsamenduaren eta eguneroko praktikaren arteko uhinak bultzatu nahi genituzke, perturbazioak eragin, elikatuko gaituen uhinak egin, haziaraziko gaituzten uhinak izan.

Biziak dira uhinak, eta hemengo pentsamenduak eta praktikak, energia transmisioa eta transmisoreak bultzatu, plaza bat eman.



ZER DIRA UHINAK?

Pentsamendu kritikoa saretzeko bekak edo sariak dira. Bultzada txiki hauekin pentsamendu kritikoa balioan jarri nahi genuke, zabaldu eta bistaratu nahi genuke, errealitatearekin elkarrizketan jarri nahi genuke. Horretarako saritu, saretu eta argitaratzeko aukera da eskainiko duguna.

Jakin badakigu arbitrarioak eta lausoak izan daitezkeela mugak, eta dialektikak erakusten digula elkar loturak guk uste baino handiagoak direla, sakontasunak hasieran batean uste baino urrutiago doazela, eta hain zuzen ere horretara bultzatu nahi genuke lan edo ikerketa aurkezteko prest dagoen hori, interesatua egon zaitezkeen hori. Lanak izaera, forma eta modu ezberdinetakoak izan daitezke. Eman forma proposamenari eta helarazi, uhinak eratuko dituen lehen harri hori.

Horretarako, eta ordenatzeko modu bat denez, lan lerro edo ardatz ezberdinak definitu ditugu. Sailkapen hau eginez:

ARDATZAK

01

Burujabetza eta estatugintza:
beka bat

02

Ekonomia eta sindikalgintza: bi
beka

05

Iragana, etorkizuna eta iruditegi
soziala: beka bat

03

Feminismoa: beka bat

04

Euskara, kulturgintza,
naziogintza...: beka bat

06

EHUko "Subiranotasuna Europako
Herrietan Masterra"-ren
amaierako lan hoberenari: beka
bat

BURUJABETZA ETA ESTATUGINTZAREN ATALA

Demokraziaren pribatizazio garaiak dira gureak, pribatizatzaileak dira gaurko uhinak. Neoliberalismoa (kapitalismo heteropatriarkala), nazio eta estatuak, herritartasun eta gobernantza ereduak, hots, gaur artean eraiki -eta irabaziditugun antolaketa eredu politiko eta sozialak pribatizatzen ari da. Burujabetzari merkatu prezioa jartzen ari gara.

Subjektu eta horien gobernantza edo ahaldunderako egitura eta lanabesak merkaturatzen ari dira. Izenaz aritzeko, izendatzeko, lerroa izan nahi du beraz honek ere.

Burujabetzaren, antolaketa politikoaren, herritartasunaren, gobernantza gaitasunaren... izen eta izanak, eraikuntza sozial izanik, ulermen fase historiko ezberdinak bizi izan dituzte. XVII. mendeko estatu-nazioen sorrerek, integritate territorialaren printzipioa eta ulermena ekarri zuten, II Mundu Gerraz geroztik, kolonizatutako herriak burujabetzaren eta erabakitze eskubidearen subjektu izango dira, eta XX mende bukaeran, aldiz, etorriko dira ere estaturik gabeko nazioak eta azken urteetan herritarren erabakitze eskubideak hartzen du burujabetzaren forma.

Gurean, territorio honetan, burujabetzaren ulermen eta gorpuzteak zeharkatu izan gaitu, eta zeharkatzen gaitu gaur.

Beraz, berebizikoa deritzogu, demokrazia ulertzen dugun horretaz geure buruei galde egin, gobernantzaz eta ahaldunderaz, gaitasun errealez, botereaz eta eskubideetaz, herri izateaz edo ahalaz, eta herritartasunaz aritzea. Herri izatearen ulerkuntza (ber)ezaugarritzeaz ari gara beraz, herri izatearen eta herri egitearenaz. Demosaz ariko gara. Subjektu horrek antolaketarako eta etengabea beraz, bere burua (ber) egiteko gaitasun politikoaz ari gara, edo herri egitearen praktika politiko berrezaugarritzeaz.

Materialki jantzi eta gorpuzteaz. Alde anitzetatik egiteaz eta alde anitzeko egiteaz. Poliedroaz ari nahiko dugu. XXI mendeko parametroetan -eta parametroetatik- berpentsatu beharra dugu.

EKONOMIA ETA SINDIKALGINTZAREN ATALA

Ekonomiak, herri baten egituratzea eta bideragarritasuna definitzen du eta ardatz ezinbestekoa da egitasmo politiko ororen definizioan.

Euskal Herria errealitate politiko eta ekonomiko gisa bizirauteko eta ezarrita dugun eredu ekonomiko gainditzeko ahalmena izango badu, bestelako balore, ideia eta teoriak lekua izango dutelako izango da. Lerro honi ere dagokion markoa eskaini nahi diogu.

Esan gabe doa, Euskal Herrian xede horrekin lan egin eta borrokatu duten milaka emakume eta gizon egon direla. Herritarren lan eskubideak defendatu dituzten norbanako eta herri egiturak (sindikatuak) lehen mailako protagonista sozial eta politikoa izan dira eta badira ere gaur egun.

Halaber, autoeraketaren bidez herritarren beharrei erantzuna emateko izaera herritarreko egitasmo ugari altxatu dira behetik gora. Eta horregatik, Euskal Herrian, balore kooperatiboetan sustraitutako enpresak hedatu dira nonahi, garapen sozial eta ekonomikoaren protagonista izan direnak. Badira, beraz, indarguneak. Ahulguneak hamaika dira: esparru sozio ekonomikoaren gaineko ahalmen politikorik ez izatea, negoziazio kolektiboaren etengabeko murrizketak, kapitalismo neoliberalaren ezarpen legala eta, antza, geldiezina... Guzti horretan aritu nahi genuke, sakondu nahiko dugu, esperientzietatik ikasi, desikasi eta berreraiki.

Bide berriak garatzen ari dira praktika sindikalean, kooperatiboan, mugimendu sozialen ekinean, feminismoaren begirada zabal eta kritikotik batzuetan. Praktika horiek, jakina pentsatuak, eztabaidatuak, zabalduak izan behar dute. Eta guk horretan lagundu nahi dugu, ekonomiaren esparru zabala arakatuz eraldaketa sozialaren ikuspuntutik eta nazioaren garapenaren ardatzetik. Bereziki baloratuko ditugu langileen antolakuntza sindikalari, sindikalismoaren paperari eta estrategia berriei, lan harremanei eta negoziazio kolektiboaren berritzeari egiten zaizkion ekarpenak, batetik.

Eta bestetik, baloratuko ditugu ere ekonomia antolatzeke, sistema kapitalistari alternatiba edo alternatibak sortzeko ekarpenei eta ekonomia sozial eta feministaren ikuspegitik sortzen direnei.



FEMINISMOEN ATALA


Analisi eta irakurketa feministak bultzatu nahi ditugu, nazioartea, gure herria nahiz gu geu betaurreko moreetatik begiratu eta ulertzeko oinarriak bultzatu. Ikerketa eta idazkera lerro honen irekitzea, ezinbestekoa da gaur-gaurkoz bederen feminismotik hazi nahi badugu. Dimentsio eta forma ezberdinak hartu lituzke beraz lerro honek.

Feminismoa transbertsala eta eraldatzailea da. Horregatik uste dugu, estatugintzari begiratu ahal diogula feminismotik, merkatuari eta ekonomiari baina baita bestelako lan eta ekonomiari, begiratu ahal diogu herritartasunari eta herri izateko moduari, kulturari eta hizkuntzari, begiratu ahal diogu geure buru eta funtzionamenduari, begiratzeko moduari berari, pentsamenduari eta ekiteko moduari.

Atzokoaz, gaurkoaz eta biharkoaz, historiaz, egoeraren azterketaz edo zerumugaz izan daitezke lan lerro honetan aurkez daitezkeen lanak. Hetero-patriarkatu kapitalistaren egiturazko dominazio sistema zertan den kontzeptualizatzea, problematizatzea, bistaratzea eta ulertzea beharrezko zaigu.

Despatriarkalizazioaren bideak ibiltzea. Ongizatea, boteretzea eta demokratizazioaren kontzeptuak eta imaginarioak ere ikuspegi feminista batetik (ber)eraikitzea beharrezko zaigu. Subjektuari gorputza(k) jartzea, gugintzaz aritzea. Bizitza zentroratzea eta ongizate eredua zer denari -eta zer ez denari- buruz hausnartzea. Genealogiak ezagutzea, eta erreskatatzea, kontatzea.

Ikuspegi interseksionala definitu eta praktikara eramatea.



EUSKARA, KULTURGINTZA, NAZIOGINTZA... ATALA

Historiak, kulturak eta hizkuntzak ezaugarritzen duten bezainbeste, nazioa herri baten irudimenaren emaitza ere bada. Guztiak egiten gaitu herri. Eta herri egiten gaituen horretan arakatu, kontzientzia hartu, berrikasi eta berregin... egitea ezinbestekoa da. Egiten gaituen eduki eta praktikari, gugintzari, erreparatzeko lerro ezinbestekoa dugu hau beraz.

Gure historia hurbilari so egiten baldin badiogu, herritik sortu eta garatu diren ekimenek euskal nazioaren iruditeria kolektiboa elikatu dute. Izan ere, urrundik gatoz. Politikoki existitzen ez zen herria ginen, hizkuntza bera ere debekatua zuen herria. Ezerezetik eraikitako utopia izan da gaur arteko ibilbidearen erregaia. Eta utopia horrek euskal jendartean identitate kultural askatzailea hezurmamitu du.

Lerro honetan ere asko dira iker edo ezagutzeko izan ditzakegun uhinak. Atzokoaz, gaurkoaz, eta biharkoaz izan daitezke lanak noski honetan ere. Hizkuntzaren haritik tiraka egin dezakegu aurrera, hizkuntzaren datuetan murgildu, hizkuntzaren izaera performatibotik ekin, euskara bera aztertu edo euskaratik eta euskaraz, euskaradun herria irudikatu.

Kulturaren haritik tiraka egin dezakegu, normalitate akulturalaz, globalizazioaz eta nazioarteko prozesuez, eta euskal kulturaz sakondu daiteke, baina baita pultsio kultural utopikoaren eta iruditegiaren inguruan ere. Herrigintzaren izenaz eta izanaz aritzea, gugintzaren nondik norakoetan pausatzea, hizkuntzaren, kulturaren, imaginarioaren... zirrikutuetatik pentsamendu bakarra arrakalatu eta, gure genealogiak berreskuratu, gaurko pentsamendu kritikoa garatu, nahiz utopia irudikatze ariketak egitea beharrezko zaigu.

Herriak bizirik dirau. Biharko Euskal Herria irudikatuko duen pultsio kultural utopikoa berreskuratu behar dugu, ez badugu setiatzen gaituzten Estatuaren normalitateak irenstea nahi.

IRAGANA, ETORKIZUNA ETA IRUDITEGI SOZIALA ATALA

Karl Marxek idatzi zuen pertsonen egiten dutela beren historia, baina ez edonola, haiek aukeratutako baldintzetan edo, baizik eta iraganetik datozen baldintzetan. Eta era grafikoan gehitzen zuen hildako belaunaldien tradizioak zapaltzen duela bizidunen burmuina.

Gogoeta honetan bildurik daude historiari buruzko gure bi kezka nagusiak. Batetik, iragana ezagutzeko beharra, gaurko egoeraren oinarriak eta borroka askatzaileen aurrekariak ezagutzeko; eta bestetik, egungo jardueraren nagusitasuna, historiak ez baitu oraina, ezta etorkizuna ere, idazten.

Gurean, errelatoaren lehia gisa bataiatu dute egitasmo politikoen arteko talka, funtsa politikoa izkutatzuz, indarkeria jarduera zehatz baten inguruko epaiketa inkisitorial-moralista lehenetsiz, jendarte zapalkuntzak botere harreman desorekatuak, egiturazko antagonismoak eta, finean, politikaren ezaugarritze gatazkatsua ukatuz.

Horregatik ezinbesteko zaigu XX. mendetik aurrera piztutako Euskal Matxinadaren historia geuk kontatzea, zapaltzaileen errelatoa zapalkuntzaren zilegiztapena besterik ez baita. Zapalkuntza horien ibilbidea eta haien aurreko erresistentzia eta borroka askatzaileen historia berreskuratu behar dugu, herri gisako subjektibizazio jardueran bultzatzeko, bestela esanik, subjektu ahaldun gisa aritzeko.

Lerro honek iraganera eramango gaitu nolabait, ez bertan geratzeko, izan ginenaz eta garenaz ezagutzeko eta jarduteko aukera bezala. Gure sustraletara, gure azalean ditugu orbanetan sakontzeko aukera izango da.


Historia ofizialek hitz egiten ez duten horretaz jardun genezake, memoriaz, genealogietaz, bizitzakoaz eta kontatutakoaz, edo kontatu ez den horretaz jarduteko aukera izango da, berreskuratu eta berridaztearen garrantzia nahiko dugu beraz azpimarratu gaur garen horien oinarrian dagoen hori.



“SUBIRANOTASUNA EUROPAKO HERRIETAN MASTERRA”

EHUko “Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra”

Pentsamendu kritikoaren sorreran eta modu berezi batean gure herriaren jakintza kualitatiboa eraikitzeko egiten den goi mailako titulazio eta ikerketa bidea izanik, horretan ari direnen bultzada izan nahiko da master amaierako lan hoberenak saritzeko aukera irekiz.



iparhegoa

Basque
Environment
Foundation

